

AMONA ABELINAREN KANTUA

1. Euskara

- Gure euskara da gauzik ederrena, ni orregaitik naiz euskalduna.
- Pozik nago euskarakin ikasten nabillena.
- Denpora asko eraman arren gustora dijuana emendik aurrera ikasten dudana izango da ona.

2. Neskaxa polita

- Neskaxa oso polita da nere buruan sartu da begiak ezin kendu juan arren berarengana.
- Gelditu naiz oso urrun.

3. Arrantzalea

- Arrantzale ona juaten zera itsasora, oitura aundia daukazu.
- Gaztetik juan zera, itsasoa ondo ezagutzen dezu, eta prest zaude, berarekin borrokatu behar badezu.
- Dena ematen dezu: zure borondatea, indarra,... eta askotan baita zure bizia ere.

4. Polita

- Zu oso polita zera, zenbat urte daukazu? konturatu zaitez gaztea zerala, ori oso ederra da.
- Baina gogoratu ezazu urteak juaten dirala, eta beraiekin eramaten dituzula edertasun guztiak bereala!

5. Euskaldunak

- Euskaldunak gera, Baña denok ez gera berdinak, ez itz egiten degunian, eta ez geran moduan. Baña denok daukagu' gure Euskalkerria. Orregaitik gogoratu behar degu bizi geran bitartean.

6. Amona

- Amona da gauza aundia mundu onetan daukana esperientzi guztia.
- Orregaitik eraman ditu gauz asko bere bizian.
- Prest dagona denontzako orregaitik bearko genduke sari aundi bat eman gure biotz biotzetik.

7. Askotan esaten dizut

- Askotan esaten dizut burua ondo ibili behar dala kasu egiteko nik esaten dizudanari.
- Baña ez duzu entzuten eta ez dakit zer egingo deten zure buru txiki orrekin.

8. Mundua

- Mundu onetan bizi gera batak bestea ikusi ezin ez. Pena aundia da piska bat gogoratzen degunez burruka asko degula guk denon artez.
- Oso geizki gabiltza eta egin bearko degula zeozer denon artez. Bestela ikusiko gera oso geizki nire ustez.

9. Langillea

- Zu langillea zera gañera oso ona lan asko egiten dezuna bañan ori bai azkeneko orduetan nekatuta gelditzen zerana ikusita nola zure lanak onartuak izan diren naiko pozik gelditu zerana.

10. Euskadi

- Euskadi da polita eta emen bizi gera. Zer egingo genduke juanez emendik kanpora? Ibiliko giñake, nola? uste det txoriak bezela eta ezkenian iritsiko giñake gure txokora.

11. Ameriketara

- Nere euskal lur ederra, zutan zoriontsu jaio nintzen, egun ori sekulan ez det aazten ezta emendik kanpo nintzenean ere.
- Oso illunaldian eta atzeratuta pozik eta ameriorikan gabe, nere amets guztiak itzuli ziren min mingots deskonsolatua sentitzen det lur jota gelditzen dala nire izate gaisoa, gogoratzen detenean nere lurra baliteke sekulan ez detela ikusiko.
- Illuntasunian bizi geranak beti nekatuta sufrimenduarekin, ikusten det nun jaio nintzen, bañan jakin gabe, nun ilko naizen.

12. Eguarriko festak

- Oraingo festa auekin ibiltzen gera oso ederki. Zergaitik juaten gera eta dena ondo ikusi?
- Baña gustatzen zaigu ikusi degun guztia ortaz egin degu dena erosi gero etortzen zaigu buruko min aski, zergaitik poltsikuak gelditzen dira oso utsik.

13. Nere umetxoa

- Nere txiki maitea oso urrun jua zera beti illun gelditu da nere biotza.
- Uste det orrela egongo dala denpora askotan baña emen bizi geran bitartean aurrera egin bearko detela.
- Ikusio gera egun batean eta ordu aren artean zu nerekin egongo zera bizitza guztian.

*Amoña Abelina Zabala
75 urte*

